

TABAKALERA



Informazio gehiago eta izen-emateak:

hezkuntza@tabakalera.eu
Tabakalerako Informazio puntua
943 11 88 55

Zentroaren ordutegia

Astelehentik ostegunera: 08:00 - 22:00

Ostirala: 08:00 - 23:00

Larunbata: 10:00 - 23:00

Igandea eta iaiegunak: 10:00 - 22:00

Andre zigarrogileak plaza 1,
20012 Donostia / San Sebastián
Gipuzkoa

tabakalera.eu

—



#gozatutabakalera

Hezkuntza programa 2017–2018



Gipuzkoako Foru Aldundia



LG: SS - 862-2017

Donostia / San Sebastián

—

tabakalera.eu

—

Bota dadoak.

Jolasa. Jolasaren ideak zeharkatuko du 2017-18 hezkuntza programa Tabakalerako hezkuntza-taldeak hala erabakita. Eta esku artean duzun ale hau lantzerakoan hasi gara asmo hori praktikara eramaten. Jolastuz idazteko eta idatziz jolasteko proposamena da. Taldean testu bat eraiki eta hortik zer adierazpen ager daitekeen ikusteko. Eredua alderantziz ipintzeko, apurtxo bat besterik ez bada ere, denon artean idatzitako arauak egon daitezten, bai eta denon artean araututako idazketa bat ere.

Hona hemen emaitza:

— **Uztailak 7, ostirala, 15:12**
Anak bere mahaian topatu
ditu jolasaren arauak.

Arau orokorren kita irakurri eta zerrendan datorren gaietako bat aukeratu. Idatz ezazu bururatzen zaizun lehen esaldia, haren hitz nagusiak har itzazu, begira itzazu hiztegian eta berriatze ezazu esaldia 4 eratar. Ondoren, aukera ezazu haietako bat.

(...) Sormena, esplorazioa eta imajinazioa lantzeko beharrezkoa da jolasa. Jolasaren

bitartez sortzen dira egoera berriak eta, bide batez, irtenbide eta konponbide berriak bilatzen dira. Eginez ikasten da, eta jolas eginez ere ikasten dugu (...) izaten.

— **Uztailak 10, astelehena, 10:00**
Anak idazketa-arau berriak
Aneri pasatu dizkio.

Jolasteko arau orokorren kita irakurri ondoren, Tabakalerako plazara jaitsi. Zerrendako gaietako bat aukeratu eta idatz ezazu hartaz, zeure

kontakizunarekin tartekatuz plazan ikusten dituzun jolas-uneak.

(...) Begirada ezkerretarantz bota eta, ez oso urruti, pertsona bat ikusi dut lotan aulki batean, eroso itxuran; zertaz ari ote den pentsatzen edo amets egiten galdetu diot neure buruari. Konturatu naizenerako, ordua igaro da, eta berritua, neure buruari galdetu diot zer esan nahi ote duen jolasak. Jolasa jarrera bat da, zeure barnean aurkitzea gustatzen zaizun hori (...).

— **Uztailak 11, asteartea, 14:00**
Mertxek bere mahaian gainean
aurkitu ditu idazketa-arau berriak.

Zure lagunek orain arte idatzi dituzten testuak irakurri ondoren, une lasai bat aukeratu idazteko, eta prestatu dudana gailua edo hilotz dotorea aktibatuz. Jarri zure kontakizunak jolasarako arau orokorren kiteko gaietako batekin harremanean.

(...) Helarazi didaten jolasarako gonbitari ekin diot: hilotz dotore bat, surrealisten asma-tutako jolasa, inprobisazioa, bat-batekotasuna eta intuizioa uztartzen dituen. Planifikatuta ez dagoenari ataka zabaltzen dioten jolasak dira, eta ikasketa berriak egiteko aukerak eskaintzen dituzte. Horrelako guneak funtsezkoak dira gure hezkuntzako jardunerako, eta halakoak gertatzea ahalbidetu behar dugu, elkarrekin jolasteko, elkarrekin ikasteko, elkarrekin asmatzeko, elkarrekin sortzeko. (...)

— **Uztailak 12, asteazkena, 14:47**
Mertxek Nereari pasatu dizkio
idazketa-arau berriak.

Jolasaren arau orokorren kiteko gai-zerrendara itzuli eta bat aukeratu. Horri buruz idatzi.

(...) Jolasa, hezkuntza, jolasaren arauak, des-hezkuntza. Artearen hezkuntza gizarte-eta kultura-eraldaketarako gune bezala. Jolasean arauak sortu, eraiki, desegin egiten ditugu. Jolasaz hitz egiteak arauaz hitz egitea dakar, nork

ezartzen dituen eta nork bete-tzen dituen. (...)

— **Uztailak 13, osteguna, 8:20**
Andreak bere mahaian gainean
aurkitu ditu idazketa-arau berriak.

Kartazalean dauden esaldietako bat aukeratu eta, hura abiapuntu hartuta, idatzi esku artean duzun hezkuntza-programetako batekin lotuz.

(...) «Autoritarismoak jolasaren betekizun erakargarria zapuzten du eta lehiakortasunaren jokoa ipintzen du haren lekuan. (...) Ikasleak kalifikazioengatik lehiatzen dira; irakasleek, ondo hezitako ikasgela edukitzearen» -irakurri dut arestian jolasaren nire zatiaren jarraibideak azaltzen dituzten paper-zerrendetako batean-. Eta gaineratu dut jolas demokratikoago batek gizarte-ordena auzitan ipin dezakeela eta hezkuntza-komunitatearen baitan bestelako harreman batzuk erraztu ditzakeela. (...)

— **Uztailak 13, osteguna, 10:17**
Andreak Leireri pasatu dizkio
idazketa-arau berriak.

Zure jolaskideek idatzi duten paragrafo bakoitza irakurri, eta haietako bakoitzetik atera ideia bat. Ideiaren bat faltan sumatzen baduzu, idatz ezazu, idazlan kolektibo hau amaitzeko. Ale hau esku artean duen pertsonari kontu iezaiozu zertarako balio dezakeen hone-lako idazketa-jolas batek.

Beraz, hemen amaitzen da

jolasa. Edo hemen hasten da. Andreak ipini dizkidan arauen eraginez nire jolas-kideen testuak moztu behar izan ditut. Aukeraketa egin eta testuaren azken forma erabakitzen duena bihurtu naiz. Nik hasi, nik amaitu.

Hasi aurretik imajinatzen genuen guztia jasotzen ote du idazketa-lan honek? Gogoan dut pentsatzen ari ginen bitartean, Kaprow eta Feliou-ri buruz hitz egiten genuela, jolasaren ahalmen eraldatzaile eta politikoari buruz; arauak hautsi eta berriak asmatzen direnean gertatzen denari buruz; jolasa haurrekin lotuta ulertu baino bizitza osora hedatzeko aukerari buruz; jolasa zerbait produktiboa bihurtu eta logika neoliberalak ontzat emateko arriskuari buruz... Ez da dena jasota geratu. Baina forma eta edukia arteko harremanak, esaten dugunak eta hori esateko moduaren artekoak, plangintzan zegoenaren argibideak eskaintzen ditu.


Orain zuk hartu duzu koadernotxo hau eta askoren artean idatzitako testua irakurriko duzu. Itxi begiak. Zabaltu koadernoa edozein orrialdetan eta irakurri suertatu zaizun programa. Etorriko al zara?



TABAKALERAKO HEZKUNTZA-LANTALDEA: LEIRE SAN MARTÍN, NEREA HERNÁNDEZ, ETA ARTAZIAK (ANDREA ARRIZABALAGA, MERTXE PETXARRROMÁN, ANA REVUELTA, ETA ANE ZAMORA)

Lan-ildoak.

5 taula jolaserako



ERAKUSKETEKIN SOLASEAN

Nola sortu solasa erakusketaren aretoetan? Nola uzartu jarduera artistikoa alorreko berariazko jakintzak horrelakoak ez direnekin? Nola elkarlotu ikerketa-prozesu kolektiboak esparru horretan?


Erakusketekin *ekin-etatik-etan* lan egiteko, kontuan hartu behar da jakintzak gurutzatzeko sistema dinamikoak direla. Esparru ezberdinetatik sustatu eta irakur daitezkeen konstelazio gisa uler ditzakegu, eta haietan zentzu berriak sor daitezke.



PEDAGOGIAK ETA ESPAZIO PUBLIKOAK

Zer nolako hezkuntza-ahalmena dute espazio publikoak? Portaerak baldintzatu eta ekintzak mugatu ditzakete? Nola esku har dezakegu haietan kolektibitateak eraikitzeko?


Etengabeko ikasketa ematen den esparruak dira espazio publikoak. Arkitekturako eta hirigintzako maniobrek ahalmena dute zenbait jarrera normalizatu eta hegemoniaren araberakoak ez direnak kanporatzeko. Espazio publikoak elkarrekin bizi eta erabiliak izateko dira, eta hezkuntza gune egokia da horien erabilpena eta balizko eraldaketak hausnartzeko.



HEZKUNTZA ETA IKUS-ENTZUNEZKO NARRATIBAK

Nolako ahalmena du ikus-entzunezkoak ikasketaren prozesuen aktibatzaile gisa? Ikusteko, entzuteko edo kontatzeko era nagusien alternatibak sor daitezke? Sortzen eta zabaltzen ditugun irudiei buruzko gogoeta kritikoa egin al daiteke?


Ikus-entzunezko praktikek mundu berriak sortzea ahalbidetzen dute. Filma bat gai da subjektibazio-prozesuak eta, aldi berean, errepresentazio kolektiboak sustatzeko. Kontatzea, ekitea, entzutea edo begiratzea jarrera politikoa hartzeko ekintzat hartu litezke.



FEMINISMOAREN ETA GORPUTZAREN PEDAGOGIAK

Jakintza guztiak maila berean kokatzen dira ala batzuk ezkutatu egiten dira? Nola aktiba dezakegu gorputzaren entzuketa eta nola ikas dezakegu bertatik? Bizitzak eta zaintzak ardatz izan behar dutela diogunean, zer esan egin nahi dugu?

Badira zilegitasuna onartzen ez zaien jakintzak eta ezagutzak, eta haietatik jardutea interesgarria da kategoriak deseraikitzeko. Gaur egun lehentasunezkoa da zaintzaren bidezko ikasketa komuna aldarrikatzea, bizitza eta gorputza adimenaren parean ipiniz. Harremanak edukitzeko era berriak gorpuztu behar dira, horrela hierarkia tradizionalak eraisteko.



ESKOLA: HEZKUNTZA IKERKETA GISA

Nolako ikerketa-jarduerak lantzen dira hezkuntzaren ezagupenetatik abiatuta? Nola egin dezakegu gogoeta geure jarduketaz hezkuntzako lanaren bidez? Nolako ekintza eta ikerketa metodologiak interesatzen zaizkigu alor horretan?

Hezkuntzak etengabeko gogoeta- eta ebaluaketaren prozesua izan behar du. Horregatik, hari buruz ekoizpen kultural eta ikerketa kolektibo bezala hausnartzea proposatzen dugu eta instituzionalitate era berrien esperimentazio-prozesuak burutzea. Hau da, erakundetik kanporako eta barnerako pedagogia egitea.

Index 1 (aurkibidea, eduki guztiak goitik behera irakurri nahi dituenarentzat)

Erakusketekin solasean - 10 or.

Bisita solasaldiak - **14 or.**

Bisita esperimentalak - **14 or.**

Testu-inguruan - **15 or.**

Hezkuntza-komunitatea eta elkarteak - 16 or.

Talde-lantegiak - **20 or.**

REC: Zinema esperimentalak - **22 or.**

Elkar-ekin - **23 or.**

Eskola-aldiriak - **24 or.**

Irakasleentzako programa - **25 or.**

Gazteentzako programak - 28 or.

Hiria Hackeatu. *Gazteak, hiria eta makerrak* - **32 or.**

Harrotu ileak. *Identitatea, harremanak eta gazteak* - **33 or.**

ZOOM bideo-laborategia - **34 or.**

0-6 Bizi! Elkarrekin ikasi, sortu eta hazi - 36 or.

Kamaleoiak gara! - 40 or.

Programa - **43 or.**

Erakusketak - **44 or.**

Zinema - **45 or.**

Archiveras. Elkarrekin lan egiten jarraitzen dugu! - 46 or.

Eskola. Hezkuntza ikerketa gisa - 52 or.

Index 2 (aurkibidea, oraintxe bertan jolasten hasi nahi duenarentzat)

Erakusketak edo zinema interesatzen bazaizkizu...
11, 22, 45 orr.

Lehendabiziko esperientzia baduzu Tabakaleran...
47, 11, 43 orr.

Tabakalerako historia hobeto ezagutu nahi baduzu...
51, 48, 47 orr.

15-21 urte artekoa bazara eta zer proposatzen dizugun jakin nahi baduzu...
34, 33, 32 orr.

Irakaslea bazara eta zeure irakaskoia arte garai-kidearekin lotu nahi baduzu...
17, 20, 22 orr.

Taldeko lanetarako interesatzen bazaizkizu...
26, 24, 55 orr.

0-6 urte arteko haurra bazara eta amak edo aitak liburu hau esku artean badauka...
38, 43, 45 orr.

Feminismoak interesatzen bazaizkizu eta aurreko programan zer dugun jakin nahi baduzu...
48, 25, 27 orr.

Teknologia berriak eta hezkuntza gustuko badituzu...
32, 45, 22 orr.

Jakin-min berezirik ez baduzu baina liburu hau zure eskuetara heldu bada, aukeratu edozein orrialde eta murgil zaitez haren ezustean. Jolas berriren bat aurki dezakezu.

Erakusketekin solasean

Interpretazioak eta ibilbideak egi-terakoan malgutasun maila bat ahalbidetzen duten guneak dira erakusketak. Jarduera artistikora zuzenean hurbiltzeko lekuak dira, eta horiek sistema ireki bezala ulertzea proposatzen dugu, oso era ezberdinetan berrikuskatu eta bisitatu ahal izateko. Bisitarien interesek eta irakurketek ere elkarlotze berriak sorraraz ditzakete, eta ikuspuntu pentsaezinetatik aktibatu dezakete erakusketa. Bisita gidatuen ereduak eta jarduera artistikoetara edo komisariorantz hurbiltzeko era tradizionalak kolektiboki gainditzeari ekin nahi diogu.

2017/18 IKASTURTEAN, LAU ERAKUSKETAREN EDUKIAK EZAGUTU ETA HAUSNARTU AHAL IZANGO DITUGU. →

ERIC BAUDELAIRE. RAMÓN RAQUELLO ETA BERE ORKESTRAREN MUSIKA
2017/06/23-2017/10/15

Ramón Raquello eta bere orkestraren musika Eric Baudelaire artistaren bakarkako erakusketa da eta bertan bere obraren ibilbide bat jorratzen da, instalazio, argazki, grabatu eta filmak biltzen dituena. Bere lanak irudia eta horrek munduaz dugun ikuskera baldintzatzeko duen gaitasuna lantzen ditu. Egiten dituen filmetan eta sortzen dituen objektuetan, galdera errepikari batek zeharkatzen du Eric Baudelaire-ren praktika: Zer gertatzen da irudiak hitzetatik bereizten direnean?

CALE, CALE, CALE! CAALE!!!
Juan Canela
2017/10/27-2018/02/02

Antropozeno garaian magiak, errituek eta irrazionalak naturan zer leku duten aztertzen du erakusketa kolektibo honek. Artista hauen lanak bilduko dira bertan: Aitzkoa, Valentina Desideri, Tamar Guimarães & Kasper Akhøj, Oier Iruretagoiena, Equipo Jeleton, Julia Rometti & Víctor Costales, Beatriz Santiago eta Osías Yanov. Juan Canela, erakusketako komisariora, bigarren deialdian hautatu zuten Tabakalera komisariotza-egonaldi bat egiteko, eta bertan bere erakusketa-proiektua testuinguruan ipini eta forma emateko aukera izan zuen.

ITZIAR OKARIZ
2018/02/16-2018/06/03

Bere obra osoa gorputzaren eta nortasunaren erai-kuntzari buruzko ikerketa zehatza da, horrek arlo publiko eta pribatuarekin duen harremanaren gainekoa, eta gune soziala eraikitzeko darabilgun memoriaren ingurukoa. Hitzik gabeko komunikazio-ariketa bat da. Performancearen funtzionamenduari buruzko gogoeta egiten du erakusketak. Haren muga eta konbentzioei buruz hausnartzeko gonbita egiten du, eraikuntza kultural bezala har dezagun.

HOT IRON
Adrià Julià
2017/10/27-2018/02/02

Fundació Miró eta haren Espai 13 zikloaren eta Tabakalera arteko lankidetzaren ondorioz sortu da erakusketa hau. Koprodukzio honetan Adrià Julià, Los Angelesen bizi den artista katalanak proiektu berri bat aurkezten digu; ikus-entzunezko pieza bat da haren ardatza. *Hot Iron* erakusketak batetik besterako aldaketaren kontzeptua eta harreman ekonomikoen eragina lantzen ditu kultur inportazio eta esportazioen esparruan. Aldi berean, ikerketak, dinamika horiek beste alor batzuetan dituzten albo-eraginak azaltzen ditu. Esaterako, lurraldean, ondorean edo emakumearen gorputzean, edo nola eraldatzen diren balio kulturalak turismoaren eta kirolaren azarpenaren bitartez.

Bisita solasaldiak

Bisitaldi hauetan Tabakalerako erakusketetako edukiekin harremanean jarriko gara ordu-beteko **ibilaldiak** eginez. Zentroko hezitzaileen laguntzarekin erakusketak ezagutzeko interesa duen edonori zuzendutakoak dira. Metodologia parte-hartzailea erabiliz obretara eta diskurtso komisarialetara hurbiltzea proposatzen dugu, horrelako bisitaldietan normalean eman ohi diren rolak birplanteatuz, eta erakusketa-aretoak eztabaida publikorako gune bihur daitezkeela ulertuz.

•
Egunak: Hilean, bi asteazken
Orduetgia: 18:00 ES / 19:00 EU
 ☑ Aldez aurretik izena emanda
 *ZHI (Zeinu Hizkuntzako Interprete) zerbizua eskuragai aldez aurretik eskatuta.

Bisita esperimentalak

Erakusketa bakoitzean bi pertsonari gonbita egiten zaie bere interes eta interpretazioetatik abiatuz bisitaldiak proposa ditzaten eta horrela, bestela agertuko ez liratekeen zentzu **eta irakurketak** berriak sor daitezten. Hezitzaileek, zientzialariek, biologoek, historialariek, antropologoek, ikasleek... ezusteko topaketak eta ibilaldi alternatiboak sorraraziko dituzte erakusketa-aretoetan.

Orain arte programan parte hartu dutenak: Olatz González de Abrisketa (antropologoa), Leire Apellániz (zinegilea eta proiektziozile), Idoia Montón (artista), Olaia Miranda (ikertzailea eta irakaslea), José Luis Tirado (artista eta zinegile independentea), Sejo Carrascosa (LGTBIQ ekintzailea), Jeanne Roland (ekintzaile feminista eta ikertzailea), Miren Cajaraville (biologoa), Mikel Agirre (ekologista), Oier Etxeberria (komisarioa), José Antonio Azpiazu (historialaria) eta Víctor Iriarte (zinegilea eta programatzailea).

↓
**HURRENGO BISITALDI
 ESPERIMENTALAK:**

2017/09/27
 18:30 EU
 ERIC BAUDELAIRE. RAMÓN RAQUELLO ETA BERE ORKESTRAREN MUSIKA
 Arantza Santesteban eta Irati Gorostidi, zinemagileak

2017/12/30
 12:00 EU
 CALE, CALE, CALE! CAALE!!!
 Ainhoa Martín Blázquez, gizarte-hezitzailea eta EHUKo Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko irakaslea.

•
 ☑ Aldez aurretik izena emanda

Nori zuzendua: Arte garaikidean interesa duen edonorentzat, aurretiatzko ezagutzarik eduki behar izan gabe.

•
Egunak: Hilean behin, asteartez
Orduetgia: 18:30-20:00. Erakusketa bakoitzeko hiru saio. EU/ES
 ☑ Aldez aurretik izena emanda



Testu-inguruan. Arte garikidera hurbilketa

Testu-inguruan Tabakalera egiten diren erakusketekin batera diharduen ikasketa-talde bat da. Hilero elkartzen gara erakusketen edukietan sakondu eta bestelako ideia eta eztabaidak aktibatzen. Testuak, filmak, erakusketetako obrak edo haiekin zerkusia duten beste hainbat material **berrikusten** ditugu, arte garaikidearekin lotuta dauden gaietan auto-hezteko asmoarekin.

2017/18 ikasturtean, dardoak botako ditugu zoriak zer ekarriko digun jakiteko. *Cale, cale, cale! Caale!!!* ala *Hot iron?* Eta erakusketa bakoitzaren barnean, pieza hau ala bestea? Nondik hasiko dugu Itziar Okarizena? Eta berak botatzen badizkigu dardoak?

Hiru saio egingo dira urria eta urtarrila bitartean, eta beste hiru martxotik ekainera. Bi bider hiru, sei. Aurrera, bota berriro eta jauzi. Oraingoan, programa hau zoriaren mende utziko dugu hein batean.





Hezkuntza- komunitatea eta elkarteak



ESKOLA, ELKARTE, UNIBERTSITATE ETA IRAKASLE-TALDEAK

Tabakalera eta hezkuntza-komunitatearen arteko harremanak josi eta lantzean interesa izaten jarraitzen dugu, eta erritmo, jarduera eta lankidetzaz ezberdinetan aritzeko aukera eskaintzen dugu. Gure praktika etengabe aberasten ari dira eskoletako ikasleak, hainbat elkartetako taldeak, irakasleak eta hezitzaileak...

Joan den ikasturteko esperientziaren ondorioz, hezkuntza komunitatearekiko lan proposamena berrantolatu egin da. *Elkar-ekin* epe ertaineko programek duten ahalmen eraldatzaileaz jabetu gara. Sekuentzialtasun horrek talde bakoitzaren berezitasunak ikustea, eta noranzko askotatik bideratu daitekeen elkarrizketaren bitartez lan egitea ahalbidetzen du: taldetik kultur-zentrora, kultur-zentrotik taldera; baita kanporantz ere. Horrega-

tik, lantegi edo bisitaldi puntualen aldean, formatu horri leku gehiago eskaintzea proposatzen dugu.

Iazko ikasturtean hasi genuen *REC zinema esperimentaleko lantegia* berriro programan agertzen da, baina bertsio luzatuan oraingoan: lau lan-saio talde bakoitzarekin zinemagintzan, *zinema ikus-tetik zinema egiteko* bidean sakontzeko.

Bestalde, *Eskola aldiriak* deialdiak ere bigarren modalitate bat izango du lurraldeko ikastetxeetara begira. Irakasleentzako programari dagokionez, ilusioz ekingo diogu hezkuntza, jarduera artistikoak eta pedagogia feministak elkarlotzeko bideari. Bi aldetatik ernetzen den proposamena da: batetik, gai horretan sakontzeko dugun interesetik eta, bestetik, aurretik irakasleengandik jaso ditugun eskarietatik.

Talde-lantegiak

LANTEGIAK ERAKUSKETETAN

Bi orduko lantegiok Tabakalerako erakusketara lehenengo hurbilpen bat egitea ahalbidertzen dute. Saio dinamikoak dira, taldeen behar eta interesetara moldatzen gara eta haien parte hartze aktiboa sustatzen dugu.

ERIC BAUDELAIRE. RAMÓN RAQUELLO ETA BERE ORKESTRAREN MUSIKA
2017/06/23-2017/10/15

Ikus-entzunezkoek duten botereaz hausnarketa egingo dugu, ondoren, argazki eta bideoen bitartez asmakizuneko kondairak sortzeko. Nolako egiak eraikitzen dituzte irudi horiek? Egiten ditugun argazkietan, ba al da egia itxurako fikziorik?

CALE, CALE, CALE! CAALE!!!
2017/10/27-2018/02/02

Cale, cale, cale! Caale!! erakusketak naturak magiarekin, errituekin eta irrazionaltasunarekin zerikusia duten gorabeherak lantzen ditu. Ontzat irakurtzen diren jakiteak zein dira, eta zein ez? Nola sor ditzakegu auto-eraikuntzak magikotasunetik eta errituetatik?

HOT IRON
2017/10/27-2018/02/02

Adrià Juliàren *Hot Iron* erakusketak kultur inportazio eta esportazioen inguruan harreman ekonomikoei buruzko hausnarketa egitea ahalbidetuko digu; esate baterako, bertako kulturaren eraldaketa turismoaren eta kirolaren ezarpena dela eta. Merkatua, memoria, lurralde kulturala eta herri-iruditegia bezalako haiak barne biltzen ditu itxuraz elkarren artean loturarik gabeko gertaerak aztertzen dituen ikerketa honek.

ITZIAR OKARIZ
2018/02/16-2018/06/03

Bere obra osoa gorputzaren eta nortasunaren eraikuntzari buruzko ikerketa zehatza da, arlo publiko eta pribatuarekin duen harremanaren gainekoa, eta gune soziala eraikitze-ko darabilgun memoriaren ingurukoa. Hitzik gabeko komunikazio-ariketa bat da. Lantegian, performancea, gorputza eta espazioa, errepikapena eta zeinua landuko dira, beste gai batzuen artean.

Nori zuzendua: Lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, batxilergoa, LH, unibertsitatea eta elkarteak.

•
Egunak: 2017/09-2018/06
Orduetgia: Asteazkenetik ostiralera 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.
Lantegien iraupena: 2 ordu, gehienez ere.
Pertsona kopurua: 25na taldeko (gehienez, bi taldealdi berean).
📄 Aldez aurretik izena emanda

Nori zuzendua: hezkuntza artistikoan interesa duten taldeak.

•
Egunak: 2017/09-2018/06
Orduetgia: Asteazkenetik ostiralera 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.
Lantegien iraupena: 2 ordu, gehienez ere.
Pertsona kopurua: 25na taldeko (gehienez, bi taldealdi berean).
📄 Aldez aurretik izena emanda

HEZKUNTZA EZAGUTU

Jarduera artistikoa testuinguru paregabea da mundua begiratzeko eta eraikitzeke beste era batzuetara hurbiltzeko. Gure lana pedagogia kritikotik, pedagogia feministetatik eta kultur kritikatik datozkigun proposamenetatik abiatzen da. Ezagutza kolektiboa eraikitzeke eta lankidetzara sustatzeko erak bilatzen ditugu. Hezkuntza artistikoan interesa duten taldeak (unibertsitatekoak, irakasleak, ikasleak...) gonbidatzen ditugu lantegi honetara gure planteamenduak eta lan metodologiak hainbat jarduera eta dinamikaren bidez parteka ditzaten.





REC: Zinema esperimentalak

Programa honen helburua ikus-entzunezko auto-irudikapena eraikitzeko eta ikusarazteko tresna gisa lantzea da.

«Esperimentalak» deitu ohi den zinemagintzak kontaera edo hizkera komunikatiboa kanpo geratzen diren ikus-entzunezko adierazpenak, jarduteko beste erak, eta estereotipoetatik at dauden ideia eta subjektuak agerrarazten dituzten adierazpenak biltzen ditu. Arraza, generoa, nortasun sexuala edo ideologia bezalako gaiak landu nahi ditugu taldeekin, konbentzionalak ez diren formatuekin uztartuta.

Edukietan sakontzeko helburuarekin, saio kopuruak ugaritzea erabaki dugu: ikusketa-saio batekin hasiko gara, ondoren beraien gailu mugikorrek edo kamerekin grabaketak egiteari ekingo diogu eta gero material horiek editatu egingo ditugu. Azken eztabaida-saio batekin amaituko da programa.

Nori zuzendua: Bigarren hezkuntzako 3. eta 4. mailako eta batxilergoko taldeak.

Egunak: 2017/10–2018/05
Saio kopurua: Launa saio talde bakoitzeko. Saioak hilabeteko epean egingo dira, ahal dela.
Saioen iraupena Tabakaleran: 2 ordu, gehienez ere.
Saioen iraupena Institutuan: Taldearen arduradunarekin adostu beharrekoa.



Epe ertaineko programa

Egunak: 2017/10–2018/05
Saio kopurua: Bina bilera (prestakuntzako eta ebaluaketa partekatuko) eta hiruna saio taldeko. Saioak hilabeteko epean egingo dira, ahal dela.
Saioen iraupena: Tabakaleran garatuko diren saioek Zorduko iraupena izango dute gehenez ere. Ikasgelan garatuko diren saioen iraupena, aldiz, taldearen arduradunarekin adostuko da.

Elkar-ekin

Irakasleekin eta ikasleekin batera unitate didaktiko bat diseinatzea da *Elkar-ekin* programaren xedea. Hiru eta bost saio arteko sekuentzia pedagogiko bat eratuko da talde bakoitzaren beharrei eta interesei erantzuteko eta haien trebetasunak garatzen laguntzeko. Horretarako, ikastetxearen curriculumarekin koherentzia gordeko da eta Tabakalerako hezkuntza-arlotik proposatutako gaiak kontuan hartuko dira.

Hezkuntza arautuko parte ez diren taldeek ere (elkar-teak edo bestelako taldeak) programan parte hartu dezakete. Kasu horretan ere, talde bakoitzaren beharrekiko loturak bilatuko dira ikasketa-prozesua aberasteko asmoz.

Ondorengo bloke hauetakoren bat abiapuntutzat hartuta zehaztuko dira gaiak:

- **Jarduera artistikoak:** Tabakalerako erakusketetatik (ikus ondorengo erakusketei buruzko informazioa 13 orrialdean) eta ikus-entzunezkoen programatik eratortzen diren edukiak.
- **Feminismoak eta performance:** jarduera artistiko feministekin eta performatibitatearekin zerikusia duten edukiak, genero-erakuntzei begirada kritikoa eskainiz.
- **Espazio publikoa:** espazioak erabilpen batzuk zilegitu eta beste batzuk debekatu dituzten leku arautu gisa birpentsatzea ahalbidetzen duten edukiak.

Irakasleek (edo, bestelakoetan, talde/elkarteko arduradunek) eta Tabakalerako hezitzaileek unitate didaktikoa diseinatu dute elkarrekin. Prestakuntzarako bilera bat egin eta ondorengo saioak dinamizatuko dituzte, ikastetxeko guneetan edo Tabakaleran. Azkenean, ebaluaketa partekatua lantzeko saio bat egingo da, prestakuntzako bileretan ezarri ziren helburuak kontuan hartuz.

Eskola-aldiriak

Eskola aldiriak deialdia urtero egiten da eskolako, auzoko edo

hezkuntza komunitatearekiko aliantzak sendotzeko

ahaleginean.

Orain arte, honako proiektu hauek landu dira:

- *Auzoko Hitzak*, Egiako hiru ikastetxerekin: Aitor ikastola, Maria Reina eskola, Mundaiz ikastetxea (2014/15).
- *Ikastolatik auzora, auzotik ikastolara*, Antiguoko Jakintza Ikastolarekin (2015/16).
- *hilHERRibizi*, Egia-Intxaurrendoko Lauaizeta Ikastolarekin (2016/17).

2017/18 ikasturtean modalitate berri bat (B) sortu da Gipuzkoako ikastetxeei zuzendua.

2017/18 ikasturtean burutuko diren proiektuak ondorengo hauek izango dira:

- A modalitatea: *Harremangune Berri baterantz* Hernaniko Ereñotzu auzoko Txirrita ikastetxeak aurkeztutakoa; bertan eskolako patioa berraztertzea proposatzen da. Nolako eskola bizi nahi dugu? galderatik abiatuta, eskola espazioan ematen diren harremanen inguruan gogoeta egingo da.
- B modalitatea: *Almeneko eskola bidea*, Eskoriatzako Arizmendi Ikastolako proiektu bat, ariketa fisikoa eta ingurumenarekiko eta haren testuinguruarekiko harremana sustatu beharretik sortzen dena, eta eskolarako bidea era aktiboan biziberritu nahi duena.

luzeko ikasketa prozesuak abiarazteko aukera eskaini nahi du,

burutzeko. Lan egiteko prozedurak berraztertze eta ibilbide

hiriko esparruetan artegintza eta hezkuntza proiektu bat lankidetzan

Epe luzeko proiektuen deialdia.



2018/19 ikasturterako *Eskola Aldiriak* deialdira aurkezteko epea 2018ko maiatzaren 2an irekiko da eta 2018ko maiatzaren 31an amaituko da.

Irakasleentzako programa

Programa honek irakasleen eta Tabakale-rako hezkuntza-taldearen artean jakintzak eta esperientziak partekatzeko topaketa-sail bat antolatzen du. Lankidetzan ikasketa prozesuak sorrarazteko guneak dira, lekuan lekuko beharrak eta interesak ezagutzeko eta hezkuntza tresna irekiak ahalbidetzeko asmatuak. Horretarako, hezkuntza eta kultura garaikidearen arteko elkarrizketa-gune bat proposatzen dugu.

Aurreko edizioetan zentroaren kultura-programarekin zerikusia duten edukiei eta alorraren ildo estrategikoei buruzko gogoeta egiteko bildu gara, baina aldi berean, saioen gai-zerrendan gehitu dira irakasleen komunitatean nabarmendu diren premiak. Bestek beste, abian jarri dira agroekologiari eta hezkuntzari, arteari eta lankidetzaren prozesuei, hezkuntzari eta ikus-entzunezko kontakizunei edo pedagogia feministei buruzko mintzalekuak.

Irakasle, hezitzaileak eta hezkuntza-lanetan diharduten profesionalak.



HORI DELA ETA, ONDORENGO IKASTURTERAKO PROPOSAMEN HAUEK ANTOLATU DITUGU:

OINHERRI: herri hezitzailea, eskola herritarra **2017/10/28** 9:00-14:00 [📄](#) Aldez aurretik izena emanda

Oinherri sarearekin lankidetzan egiten da programa hau (2014tik gara sareko kide). Gogoeta eta ezagutzaren ekoizpen kolektiboa egiten duen taldea da, komunitatearen parte-hartzetik eta euskararen erabileratik abiatuz hezkuntza-esparruak sustatzen dituena. Hiru lan-ildotan mamitzen dira proposamenak: hainbat herritar proiektuak garatzea, teoria eta praktikaren arteko giltzaduraz gogoeta egiten duten koadernoak argitaratzea, eta mintegiak antolatzea.

Lehendik ziren bost argitalpenez gain, 2017an bi gehiago egin dira, horietako bat Tabakalerako hezkuntza-lantaldeak proposatu ta artea eta lankidetzaren proiektuen arteko harremanaz gogoetako azterketa bat egiten duena. Jardunaldi honetan, koadernoetako batzuen oinarri teorikoak ezagutarazteko lantegiak egingo dira, eta hurrengo koadernoaren gaia (genero-aniztasuna eta gorputzak) aurkezteko eztabaida-mahai bat antolatuko da hainbat gonbidatuekin: Candela eta Bilgune Feminista elkarteak, besteak beste.



Pedagogia feministak. Lantaldea. Zero saioa. **2017/11/20** 18:00 [📄](#) Aldez aurretik izena emanda

Feminismoak geure hezkuntza-jardueretan era transbertsalean txertatzea, eta eraikuntza hegemonikoak eraitea ahalbidetuko duen ikasketa komuna aldarrikatzea funtsezkoa dela iruditzen zaigu. Irakasle batzuegan nabaritu dugun interesa abiapuntutaz hartuz, hezkuntzarekiko interesa duten pertsonekin talde bat osatzea proposatzen dugu feminismoei eta pedagogiari buruz eztabaidatzeko, gogoeta egiteko eta ikertzeko. Esperientziak partekatzea, elkarrekin hausnartzea, prestakuntza-tresna transferigarriak sortzea eta eztabaida kolektiboa egiteko esparru komuna eratzea dira helburu.

Zero saioa taldea eratzeko abiapuntua eta urteko gainerako saioak antolatzen hasteko esparrua izango da. 2017/18 ikasturtean hiru topaketa egitea proposatzen dugu: lehen, Feministaldia 2017rekin batera, eta ondorengo beste biak taldeak berak zehazten dituen.

Pedagogia feministak. Feministaldia

2017/11/27 17:30-20:30 **ES** **2017/11/28** 17:30-19:00 **ES**
[📄](#) Aldez aurretik izena emanda
Lantegia

Sistema berrabiaraziz: Gure gorputzak, gure generoak eta gure kontatzeko erak.

Inma Hurtado (antropologo feminista eta irakaslea)

Nola helarazten eta balidatzen da hezkuntza-arloan gure gorputz sexudunei buruzko ezagutza? Gure hezkuntza-ereduak aniztasunaren irudikapen urriak eskaini ditu eta, ikuspegi dual, egonkor eta iraunkorra oinarri hartuta ematen du gure gorputzen eta esperientzien berri oraindik ere. Diskurtso feministak eta *queerak* hezkuntzara eramaten saiatuko gara lantegian, espero den normaltasuna ezegonkortze aldera. Generoaren mugak gainditzen eta auzitan jartzen dituen esploratuko dugu, aniztasuna eta konplexutasuna oinarri hartuta pentsatzera garamatzaten bestelako iruditeriak eskaintzeko, eta bururagarriaren, desiragarriaren eta, horrenbestez, bizigarriaren aukerak zabaltzeko.

Pedagogia feministak. 2. eta 3. saioak

Lantaldea sortu eta gero erabakiko da zein gai landu nahi diren ondorengo topaketetan, eta zeintzuk izango diren hartarako hitzorduak.





ARTIKERTUZ

GOGOETARAKO ESPAZIOA ETA DENBORA.

UPV/EHurekin elkarlanean.

Bigarren urtez UPV/EHurekin lankidetzan jarraitzen dugu *ARTIkertuz* egitasmoaren bidez; lan- eta ikerketa-talde horretan irakasleak biltzen dira artetik abiatuz ikasgeletan egin daitezkeen esku-hartzeak eta sor daitezkeen aukerak gogoeta egiteko. Ikasturte honetan taldeak landu dituen proposamenak gure hezkuntza programan jasoko ditugu eta, bide batez, irakasleek eskura izango dituzte Tabakalerako erakusketak eta zentroaren baliabideak. Alderantziko norabidean, *ARTIkertuz* eskaintzen duen gogoeta-guneak gure jarduketan planteamenduen eta hauek ikasketa aurautuan nola bideratzen ditugun berraztertze balio du.





Gazteentzako programak



Informazioa antolatzeak berekin darama katalogatzea eta sailkatzea, batzuetan mugatzea edo hesitzea ere izan daitekeena. Denbora daramagu geure artean galdera egiten ea egokia ote den gure programa publikoen arabera antolatzea, aintzakotzat hartuz horrek esan nahi duela, adibidez, «gazteak» hitzaren baitan ideia zehatz eta finkatu bat dagoela «gazteak» taldearen izaerari buruz. Talde homogeneoa balitz bezala defini ote dezakegu hori? Berdintsuak ote dira *Harrotu ileak* eta *Hiria Hackeatu* proiektuetan lankide ditugun gazteak eta *Zoomen* parte hartzen duten nerabeak? Jarduera bakoitzaren baitan ere, programa bereberean partaide izateak edo adin berbera edukitzeak identitatearen bat eransten duela pentsatu dezakegu? 2016/17 ikasturteko lanak ezagutarazi digu «gazte» kategoria erabiltzen dugunean norainoko aniztasunean murgiltzen ari garen, eta zalantzan ipinarazi ere egin digu horrela-

koetan erabili ohi den kolektibotasun kontzeptua ere.

Gainera, adin erabakigarriak dira, inguruan dugun mundua ulertu eta eraikitzeari etengabe eta irrikaz ekiten diogun uneak, subjektibotasun-ekoizpen eta kultura bisual ikusgarria dutenak, eta hori oso aintzat hartu beharrekoa iruditzen zaigu. Beharrezkoa eta premiazkoa da ekoizle horiekin lan egitea, haien energiak eta haiek dituzten mundua ulertzeko erak geure programak har ditzaten.

Jarraian aurkezten ditugun hiru programek bat egiten dute hainbat helburutan, esaterako, ingurumenarekiko eta aldamenean dugun kulturarekiko begirada kritikoa trebatzekotan. Gainera, kultur ekoizpen hausnartua eta kontzientea sustatu nahi dute gazteen artean.

HIRIA HACKEATU

Gazteak, hiria eta *makerrak*

Gaur egun, hiri▲ egitek○, partek▲tzek○ eta komunitatean l▲n egitek○ modu berri▲k esperimentatzen dira. Ikasket▲ ahalmen ikusg▲rria duten t○kiak dira auz○ak, k▲leak eta gune publik○ak. ▲ldi berean, *hacker* eta *m▲ker* met○d○logiek hezkuntz▲, k○de irekik○ ekoizpena eta elkarl▲na biltzen dituzte, h○rrel▲ geure hiriak pents▲tzeko, s○rtzeko eta erald▲tzek○ m○duak ahalbidetuz.

Programa hau diseinatzeko eta abiarazteko, tokian tokiko hainbat eragile, artista, ekintzaile eta ikertzaileen lankidetzak dugu; elkarrekin proposatzen eta lantzen ditugu gaiak, beti ere teknologien, gune publikoen, feminismoen, bizikidetzaren eta lankidetzak-prozesuen arteko elkargunean.

Hiria Hackeatu 12 eta 17 urte arteko gazteei zuzenduta dago eta oporraldietan egiten da, *Hirikilabs*, Tabakalerako kultura digitalaren eta teknologiaren laborategiarekin lankidetzan garatzen da. Lantegi bakoitzean, parte hartzen duen gazte taldearekin batera, geure ingurumena ikertzen dugu, eta, teknologia digitalen laguntzarekin taldean sortutako gailuekin eraldaketak proposatzen ditugu.



HURRENGO EGUNAK:

Negua

2017/12/26-29

«Kontra egin»

Publizitatea hackeatu eta kontra-publizitatea.

Udaberria

2018/04/03-06

Uda

2018/07/03-06

Orduetgia: 10:00-14:00

📍 Aldez aurretik izena emanda



HARROTU ILEAK

Identitatea, harremanak eta gazteak

Nola sentitzen dira Tabakalerara sarri datozen gazteak? Zer erlazio mantentzen dute eraikin barruko espazioarekin? Nola erabiltzen dute? Nola bizi dute?

«Tabakalera zeurea ere bada; ikasi nola maitatu, eta defenda ezazu!» lemapean, *Harrotu Ilea!* proiektuak hausnarketa bat proposatzen du bi zentzutan: alde batetik, erabiltzen duten inguruari buruzko gogoeta sustatzen du gazteen artean, inguru propio gisa uler dezaten eta eskubide eta betebeharreri dagokienez esku har dezaten; eta, bestetik, erakunde mailako hausnarketa sustatzen du, bertako espazio publikoen erabilera eta okupazioa definitzeko.

Prozesu horren hastapenak CAPP (Collaborative Arts Partnership Programme) sarearen baitan kokatzen dira, *hablarenarteren* gonbitaz han kide ginenetik. Oihane Espúñez eta Felipe Polanía artista eta hezitzaileek gurekin batera proiektua abiarazi zuten. 2017ko urtarrila eta maiatza bitartean egin zuten egonaldia eta horren bidez *Harrotu Ilea* Tabakalerako hezkuntza esparruko proiektu bat gehiago izatera pasatu zen. 2017ko urtarriletik hona hainbat jardura egin dira, hezitzaileen eta eraikinean bizi-tza egiten duten gazteen arteko lehen kontaktu bezala planteatuta. Besteak beste, argazkigintza eta bideogintza lantegiak garatu ditugu, *Open Training* arratsalde bat Street Dancen, erakusketa bat eta rap lantegi bat La Basu artistarekin.

Ikasturte berri honetan *Harrotu Ilea* gunea sustatzen jarraituko dugu ostiralero Tabakalerako bosgarren solairuan. Antolamendu-ildo komun bat eratuko dugu eta elkarrekin egin nahi ditugun jarduerak planifikatuko ditugu. Ekintza kolektiborako esparru bat sortzeaz gain, proiektuaren helburuetako bat eraikinaren esparru komunak nola erabiltzen ditugun birpentsatzea izango da, haren baitako bizikidetzak hobetu ahal izateko. 'Tabakalera egoteko' eszenategi berriak bilatu, elkarrengandik ikasi eta ekoizpen kulturalak trukatu.

ZOOM Bideo laborategia

Beste urte batez aurrera jarraitzen dugu Zoom proiektuarekin, ikus-entzunezkoetan, kultura garaikidean eta artean sakontzeko interesa duten gazteen lantaldearekin.


Hilean bi bider biltzen gara Tabakaleran, urritik ekainera, zinemagile eta artistekin lantegiak egiteko, filmak eta film laburrak sortzeko, ikus-entzunezkoak ekoizteko, bidaiak egin eta beste arte-zentroetan biltzen diren beste taldeak ezagutzeko, esperientziak partekatzeko... zer egitea gustatuko litzai-guke datorren ikasturte honetan?

Lehen saioa urriaren hasieran egingo dugu eta bertan, denon artean zehazteko ditugu ikasturteko edukiak, bi hilabeteko lau bloke-tan banatuko ditugunak. Bloke bakoitzak bere gaia izango du. Bina saio hilean. Taldeak bloke batetik bestera jauzi egingo du, laukitik laukira, leku berrietan eroriz eta jolasteko aukera berriak aurkituz. Abiapuntua lantegi bat izango da, Tabakalerako artista egoiliarrekin. Hurrengo urratsa, zurian dago oraindik. Zer izango ote da?


16 eta 21 urte artean badituzu, zinema ikusi eta egitera etorri nahi baduzu, zeure interesak eta kezak azaldu nahi badituzu, barre egin nahi baduzu eta beste gazte batzuk ezagutu nahi badituzu, hau da zure lekua!



Egunak: 2017/10–2018/06
Saio kopurua: Bina saio hilero.
Aldez aurretik izena emanda;
Bete webean datorren inprimakia
urriaren 8a baino lehen.



0-6 Bizi
*Elkarrekin ikasi,
sortu eta hazi*



0-6 Bizi diseinu et_ lankidetzarako proiektu irekia da. Proiektua 2016an sort_ zen eta haren helburuetako batzuk d_ ra elkar-ikask_ ta eta topaketarako espazioak erraztea.

GAUR EGUN PROIEKTUAK HIRU ADAR DITU:

0-6 Bizi! Proiektuaren inguruan dabilten gurasoen, hezitzaileen eta haurren multzoak osatzen du **0-6 Komunitatea**. Parte hartzeko interesa duen edonorentzat zabalik dago taldea. 0-6 Komunitateak elkarguneak eta gogoeta-guneak sortu nahi ditu haur-hazkuntza, elkar-ikasketa, jarduera garaikideak eta antzeko gaien inguruan.

Programa. Hilean behin ostiralez 0-6 Komunitateak antolatutako lan-tegi bat egiten da, edonorentzat zabalik. Proposamen horiek sorkuntza, elikadura, mugimendua, hazkuntza eta gisakoak dituzte gaitzat eta 0-6 urte artekoentzat eta haien inguruko helduentzat dira.

0-6 Gunea diseinu eta eraikuntza parte-hartzaile baten emaitza da. Gailu/gune bat da, 0 eta 6 urte arteko txikiak eta haien familiak elkarrekin egon, jolastu eta hainbat jarduera egiteko eran aurki daitezten.

- [Hirikilabs programari eta ordu-tegiari atxikita dago gailuaren ordutegia](#): Asteartetik ostirale-ra 10.00etatik 14:00etara eta 16.00etatik 20:00etara; eta larunbatetan 10.00etatik 14:00etara. Udan (uztailetik irailera), asteartetik ostiralera 10.00etatik 14.00etara.

Ohar garrantzitsua: denon artean sortu dugun gailua da eta kontuz erabili behar da. Jolasteko eta bertan egoteko hurbiltzen garenok, ondoren jaso eta zegoen bezala uzteko konpromisoa hartzen dugu.



HURRENGO JARDUERAK:

2017/10/04
17:30-19:30 EU

Lantegia
0 ETA 6 URTE ARTEKO HAURRENTZAT LANGAI PEDAGOGIKOAK SORTZEN
Xabi Beistegi eta Leire López
📄 Aldez aurretik izena emanda
Hirikilabs

2017/10/20-21
17:30 EU

Lantegia
0-3 URTEKOEN JOLASA. NOLA IZAN BIDELAGUN?
Zorutik
4 hilabete eta 2 urte arteko haurtxoak dituzten helduentzat.
📄 Aldez aurretik izena emanda
Hirikilabs

2017/11/24
17:30 EU

Lantegia
YOGA FAMILIAN
Lierni Gartzia
📄 Aldez aurretik izena emanda
Hirikilabs



i



e

0



u

Kamaleoiak gara! *0-99 Erakusketak, zinema eta pro- grama*



Kamaleoiak gara! haurrek eta helduek arte garaikidearen testuinguruan elkarrekin goza dezaten sortutako jarduera programa da. Gurasoak seme-alabekin, izeba-osa-bak ilobekin, bilobak aitona-amonekin... Tabakaleran elkarrekin bizi nahi dutenak, jakintzak partekatuz eta belaunaldien arteko komunitatean ikasiz.

2017/2018 ikasturtean eutsi egingo diogu *Kamaleoiak gara!* programari, baita erakusketen inguruko lantegiei eta ikus-entzunezkoekin esperimentatzeko hileroko saioei ere.

•
Egunak: Hileroko larunbat batean.
Orduetgia: 17:00
Hizkuntza: Gonbidatutako pertsona edo taldearen arabera.
 ☑ Aldez aurretik izena emanda.



DATOZEN EGUNAK:

2017/09/16
AMONAREN BELARRIAK
ENTZUNDAKO KONTU TXIKI
ETA HANDIAK EU
 Kontukantoi

2017/10/21
 «MANS» Eskuak
 Fes-t'ho com Vulguis
 Elkarrizketarik gabe

2017/11/04
PEQUEÑA MAX
 Arena en los bolsillos
 Elkarrizketarik gabe

2017/12/23
RETRO IPUINAK
 Miren Larrea
 Elkarrizketarik gabe

Kamaleoiak gara! **Programa 0-99**

Haur eta nagusiei elkarrekin goza dezaten jarduera programa da. Artistek, performerrek, musikariek, dantzariak, zinemagileak, narratzaileak... egiten dituzten proposamenak dira, jarduera artistikoak arte bizietatik era guztietako komunitateetara hurbiltzen dituztenak, normalean gertatzen ez diren topaketak sor daitezten.

Orain arte, formatu eta diziplina ezberdinetako proposamen eszenikoak aurkeztu ditugu: objektuen eta ikusmeneko antzerkia, Factoría Norte-ren *Click*-ekin; soinu-esperimentazioa, Xavi Lozanoren *Bufa&Sons*-ekin; edo performance-proposamena, Sra. Polairoska-ren *Lur Away*-rekin; *¿Y por qué John Cage?*, Jorge Dutor eta Guillem Mont de Palol-ena; edo *El caso del espectador*, María Jerez-ena.



Kamaleoiak gara! Erakusketak 5-99

Erakusketek helduak eta txikiak arte praktiketara hurbil du eta elkarrekin gozatze-ko aukera eskaitzen dute. 5 eta 99 urte arteko pertsoneri zuzendutako lantegi hauen bidez, erakusketa aretoetan dauden arte piezak, objektuak eta diskurtsoak aktibatzea proposatzen dugu, jolasa, ibilbideak eta parte hartzea sustatuz.

Heldu batek lagundutako 5 eta 10 urte bitarteko haurrentzat.

• **Egunak:** Hilero larunbat batean.
Orduetgia: 11:00-12:30 EU
📍 Izena emateko: tabakalera.eu, edo informazio puntuan.
*Jarduera egin aurreko ostiralean itxiko da izena emateko epea.
Parte-hartzaileen kopurua: 20 lagun gehienez, 6 gutxienez.



HURRENGO SAIOAK:

2017/11/18
2017/12/16



Nori zuzendua: Haurrak helduekin.

• **Egunak:** Hilero igande batean.
Orduetgia: Proiektzioa 12:00 / Lantegia 12:45.
Hizkuntza: lantegian euskaraz egingo da. Proiektzioak hainbat hizkuntzatan izango dira.
📍 Izena emateko: tabakalera.eu, edo informazio puntuan.
Parte-hartzaileen kopurua: Proiektzioarako, zinema-aretoa bete arte; lantegian, 25 lagun gehienera.



Kamaleoiak gara! Zineman 5-99



Hezkuntza eta ikus-entzunezko narratibak gure lan-ildoari utsiz, datorren ikasturtean *Kamaleoiak gara! zineman* programaren jarraipena egin eta ikus-entzunezko esperimentalekin belaunaldien arteko topaketak egitea proposatzen dugu. Ikus-entzunezkoak ahalmen hezitzaile garrantzitsua duela aintzakotzat hartuz, laburmetraia saio bat proposatzen dugu Tabakalerako zinema-aretoan, eta ondoren lantegi bat, ikusitakotik eratortzen diren gaiak eta teknikak landuko dituen.



HURRENGO DATAK:

Lehen hiruhileko lantegietan marrazkiak izango ditugu ardatz, puntua eta marra, geure animazioak sortzeko eta esperimentuak egiteko fli-pbookak sortuz, hilotz surrealista dotoreak eraikiz taldean, zeluloidean esku hartuz edo stop motion-aren bidez geure marrazkiei bizia emanez.

2017/10/01
2017/11/05 Punto y Raya jaialdiari Gutun zuria.
2017/12/03



**Archiveras.
Elkarrekin lan
egiten jarraitzen
dugu!**

Mañana Goodbye prozesuan Tabakalerako emakume zigarrogileen talde batekin bizi izan genituen esperientzietatik abiatuz eta tabako lantegia-
ren iraganari eta orainari buruzko gogoeta egiten jarraitzeko asmoarekin, 2016/17 ikasturtean lan prozesu bat abiarazi genuen garai bateko eta egungo langileon artean.

Artxiberas taldea ezagutza eraikitze-ko gune bat sortzean oinarritzen da, hilero taldeko bilerak eginez. Bilera horietan, historia nola idazten eta kontatzen den auzitan ipiniko duen artxibategi kolektibo bat sortzeko lanari ekiten diogu, ofizialak omen diren artxibategi horietan azaltzen ez dena jasoz, esate baterako, bio-

grafikoa dena, gatazkatsua dena eta afektibitatezkoa dena.

Hainbat material biltzen dugu: urte askotan gordeta egon dira batzuk, azken hilabete hauetan aurkitu ditugu beste batzuk, eta memorian soilik geratzen ziren eta orain kontatzen dira beste hainbat. Horien bidez memoriaren kontzeptua berztertzen dugu, eta artxibategiarena politikagintzako adierazpen moduan, honelako galderak eginez: zer kontatu nahi dugu guretzat tabakalera izan zenaz?; nola lotzen da esperientzia hori bestelako informazio eta dokumentazio batzuekin?; edo, nolako irakurketa berriak eraikitzen ditugu oraingoaz?

Artakidatzen dena, gatazkatsa dena eta gatazkatsa dena

Hainbat material biltzen dugu: nasa materialak, azken hilabete hantean aurkitu diren beste materialak, eta memoria-konsoletan geratzen ziren eta orain konsoletan dira beste hainbat. Horien bidez memoriaren kontzeptu berri bat eratu eta arxibategiarekin politika gintzako alderarekin moduan, honelako galderak egineraz konstatu nahi dugun guretatapaka-leriz nasa; nola lotzen da esperimentazio hori besteak informazioa dokumentazioa patzuekin; edo nolako irakurketa berriak erakitzen ditugun oinaz.

2017/18 ikasturtean hilean bi aldiz elkartuko gara dokumentuak aukeratzeko, irudiak eskaneatzeko, lekukotzak grabatzeko, eta katalogatzeko. Behin edo behin gonbita egiten diegu aliatuei, adibidez, Mertxe Trancheri, bisitan etor daitezten eta ekarpenak egin diezazkiguten. Azaroan gurekin izango da LaFundició-ko Mariló Fernández, eta jendaurreko saio irekia ere proposatuko du.

Horrez gain, artxibategi horri izaera fisikoa ematen hasia izango da beste funtsezko eginkizunetako bat, une honetan geuk bakarrik ezagutzen baitugu; ikasturtearen amaiera aldera *Sotoa* inauguratzea espero dugu, *Mañana goodbye. Elkarrekin lan egiten duen emakume taldearekin* batera bizi dadin.

JENDAURREKO HURRENGO SAIOAK:


MEMORIAK BERPIZTU. Mariló Fernández
2017/11/16-17 18:00 **Sotoa**


Mariló Fernández-ek (La Fundició) bi saio publiko programatuko ditu, memoriak eta usu funts gutxikotzat hartu ohi diren historiak berpizteak dakarrenari buruz hausnartzeko. Bera LaFundició-ko kidea da kooperatiba hori sortu zenetik, eta bertan bildu duen esperientziak azaltzen du ezagutzaren eraikuntza kolektiboko prozesuak abiarazteak duen interesa. Hain zuzen ere, gune horietan kontakizunaren berpizkundeak iraganaren berrirakurketa moduko bat sorrazten du, kondaira ofizialak ukitzeko eta kolokan jartzeko ahalmena izaten duena.

LaFundició kooperatiba bidegurutzean aritzen da, arte- eta kultura-praktiken eta hezkuntzaren artean, jarduera horiek guztiak *eztabaidagarritzat* hartuta. Gaur egun bere lan-ildo nagusia hainbat kolektibo, ekintza-talde eta erakundeekiko lan-kidetzaren prozesuetan oinarritzen da.

MAÑANA GOODBYE. ELKARREKIN LAN EGITEN DUEN EMAKUME TALDEA Instalazioa **Sotoa**

Ikus-entzunezko instalazio moduan dago ikusgai serie osoa. Marion Cruza Le Bihan eta Pablo Marte artistekin batera, 2015eko otsaila eta 2016ko azaroa artean landu zuen proiektua Tabacalera-ko emakume langile talde batek, aktore emakume talde batek eta hezkuntza-lantaldeak. Hamabi kapituluko seriea da produkzio-ereduaren aldaketa aztertzen duena, behatuz garai bateko tabako-lantegia nola bilakatu zen egungo Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentro. Airean bi galdera garrantzitsu: Zer behar dugu iraganetik lanari buruz ari garenean? Eta nola eta nondik hitz egin memoriaren inguruan? Galdera horiek bideratu dute egiten ari den artxibatze lana.





Eskola. *Hezkuntza ikerketa gisa*



Erakundeen hezkuntza arloek, pentsamendua sortzen eta eragiten dutela ulertzen dugu, eta gainera erakundetik «kanporantz» lan egiten duten egiturak ez ezik «barnerantz» erakundea bera ere behatu eta auzitan ipintzen dutela. Bakoitzaren antolamendu- eta produkzio-sistema ere oso aintzakotzat hartzea ezinbestekoa da horretarako.

Pedagogia alternatiboen aitortzak, kultura eredu kolaboratibo eta kooperatiboagoetara hedatu izanak, kultura askea edo sareko lana egonkortu izanak edota praktika komunitarioen hedapenak beharrezko egiten dute kultura zentroek harremanetarako bestelako modu batzuk bultzatzea egokia den edo ez hausnartzea. Izan ere, zalantzarik gabe, kultur maila askotariko giza harremanen laguntzaile eta sortzaile baita. Horregatik, funtsezkoa da hausnartzea nolako harremanak eratzen ditugun pertsonekin eta, aldi berean, ikuspegi kritikoa edukitzea geuk hezitzaile bezala dugun jarreraz.

Garrantzizkoa iruditzen zaigu ikerketa gune bat edukitzea han hezkuntza prozesuak ireki eta elkarrekin baliozatu ahal izateko. Zer egiten ari garen pentsatzeko beta hartu behar dugu geure jarduera distantzia kritikotik begiratu ahal izateko, nor bere berezitasunetatik abiatuz



Orain arte barneko lan-saioak antolatu ditugu hainbat gonbidaturekin: Irene Amengual, Aida Sánchez de Serdio, Antonio Centeno edo Irati Seijo, besteak beste.

hezkuntzarako bestelako ikuspegi batzuk proposatu ditzaketen beste komunitate batzuekin sareak egiteko, edo lan-prozedurak aberastu ditzaketen iturriak edo erreferentzia teorikoak aztertu ahal izateko.

Eskola. Hezkuntza ikerketa gisa lan-ildoaren mamia da barne mailan jardueraz hausnartzea bilerak eginez, beste eragileekin hitz eginez eta irakurketa partekatuen bitartez, eta taldekako ikerketa prozesuetan sareak eta aliantzak eratuz. Aldian behin lan hori argitaratu ematen da hainbat formatutan: argitalpenetan, blogetan, topaketetan, mintegietan...

HALABER. PARTAIDE GAREN SAREEN ARTEAN AIPA DITZAKEGU:

Oinherri sare; 2014az geroztik gara kide. Gogoeta eta ezagutzaren ekoizpen kolektiboa egiten duen taldea da, komunitatearen parte-hartzetik eta euskararen erabileratik abiatuz hezkuntza-esparruak sustatzen dituena. Hiru lan-ildotan mamitzen dira proposamenak: hainbat herritan proiektuak garatzea, teoria eta praktikaren arteko giltzaduraz gogoeta egiten duten koadernoak argitaratzea, eta mintegiak antolatzea.

Egia Hezitzailea lantaldea, Oinherriko egitasmoetatik sortu zen eta eragile multzo batek osatzen du, hala nola: Aitor Ikastola, Maria Reina eskola, Eskola Bide Segurua, Laxaga gurasoen elkarte, Bagera, Antxeta Ttan ttakun, Haurgunea, Egia Bizirik eta Tabakalerako hezkuntza arloa. 2015az geroztik biltzen da taldea auzoko haurren begirada aintzakotzat hartuko duen lan-ildoan abiarazteko. Oraingoz, jardueraren emaitza izan da lankidetzan eraikitako jolastoki bat Egia-k Hirutxulo plazan.

Another Roadmap for Arts Education, estatu mailako eta nazioarteko hainbat erakundek osatzen duten lan esparru bat da. Estatu mailako sekzioaren partaide da Tabakalera, Bartzelonako LaFundició, Fabra i Coats-ekin eta Madrillgo Intermediae-ekin batera; horiekin, proiektuak ikertzeko lana egiten dugu, haiei buruzko tresna kritikoa sortu ahal izateko; Tabakaleraren kasuan, La Fundició *0-6 Bizi!* proiektuaren inguruko ikerketa bat egiten ari da. Hala-ber, Hego Amerikako lagunekin, herri-hezkuntzari buruzko ikerketaren ildoan ekarpenak egiten hastear gara.

Iragan 2016/17 ikasturtean, hezkuntzako egonaldi bat egin genuen jarduera artistikoak hezkuntzaren ikuspuntutik berraztertzea proposatzen duen **CAPP (Collaborative Arts Partnership Program)** sarearekin lankidetzan.

